

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2015

IVAP – HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

1. Euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako "Jesús María Leizaola"-2015 saria.
2. 2014-2015eko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia.
3. 2015-2016ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia.
4. Diru-laguntza, Hirigintzari buruzko XXXIX. Ikastaroko (Bilbo, 2014-2015) eta Hirigintzari buruzko XL. Ikastaroko (Donostia, 2014-2015) ikasleek praktikak egin ditzaten.
5. Hirigintzako XLI. (41) Ikastaroaren (Bilbo, 2015-2016) matrikula-bekak
6. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak.
7. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak.
8. Euskara ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko diru-laguntzak.

1.- Izenburua

Euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako "Jesús María Leizaola"-2015 saria

2.- Araua

2015eko martxoaren 26ko EBAZPENA, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako «Jesús María Leizaola» 2015 sarirako deia egiten duena (2015eko apirilaren 16ko EHAA).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Gure autonomia-sistemak lege eta ekonomiaren arloetan dituen berezitasunei buruzko azterlanak sustatu eta zabaltzea da "Jesus María Leizaola" 2015 sariaren eginkizuna.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Sariak gure autonomia-sistemak lege eta ekonomiaren arloetan dituen berezitasunei buruzko azterlanak hedatzeko aukera ematen du. Halaber, ikerkuntzaren aldeko interesa sustatzeko egokia da aipatutako arlo horiek sakontzeko beharrianari erantzuten diolako eta etorkizuneko euskal autonomia garatzeko aproposa izan daitekeelako.

Aurtengo deialdian bi ikerlanek jaso dute saria "ex aequo". Horietako bat dagoeneko argitaratuta dago eta, bigarrena, argitaratzeko bidean.

Hona hemen egile eta ikerlan sarituak:

EGILEAK	IKERLANAK
David Mota Zurdo.	"Un sueño americano. El gobierno vasco en el exilio y Estados Unidos (1937-1979)"
Andrés María Urrutia Badiola	"Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas inter privados. Análisis desde la perspectiva del euskera en el Derecho privado español, en el francés y en el de la Unión Europea"

Aurrekontuaren adierazleei dagokienez, deialdi hauek 1216 programan (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Administrazio publikoetako langileak aukeratu eta prestatu) sartuta daude eta programa horretako adierazleek deialdiari erreferentzia egiten diote. Helburua zen sariaren

deialdi bat egitea eta horrela egin da (helburua bete da).

IVAPeko kudeaketa sistemari dagokionez, honako helburu eta adierazleak dauzkagu 2015eko programa honetan:

ZK.	Adierazlea	2015	
		Helburua	Adierazlea
1	Sarian izandako izangaien kopurua	6	3
2.1	Saria ematen den deialdien kopurua	1	2
3	EAE eta Nafarroatik kanpo bizi diren sarirako izangaien kopurua	1	0
4	Saria lortu ez duten eta IVAPek argitaratzea erabaki duen ikerlanen kopurua	1	0
5	Ikerlanen deialdiaren oinarrekiko egokitasuna	100%	100%

1.- Izenburua

2014-2015eko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia.

2.- Araua

2014ko martxoaren 6koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren Ebazpena, 2014-2015eko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzearen bi diru-laguntza emateko merezimendu-lehiaketarako deialdia egiten duena (2014ko martxoaren 13ko EHAA).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen helburua da, Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai jakin batzuei buruzko ikerlanak egitea eta Euskadiko herri-administrazioen eraginkortasuna areagotzea. Ikerkuntza programa honek urtebeteko iraupena du.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014-2015eko deialdian esleitutako proiektuen arabera ikerlanak aurkeztu behar ziren 2015ean. Honako hauek ziren esleitutako proiektuak:

- a) Videovigilancia: ámbitos de aplicación, derechos afectados y eficacia probatoria JOSÉ FRANCISCO ETXEBERRIA GURIDI).
- b) Monetización del impacto social en la Administración Pública (LEIRE SAN JOSÉ y JOSÉ LUIS RETOLAZA).

Ikerlanak zegokion epean aurkeztuak izan ziren eta epaimahaiak aurkeztutako ikerlanen inguruan bere azterketa egin zuen.

Egindako azterketaren ondorioz, ikerlanek jaso zituzten balorazioak —eta bere ondorio ekonomikoak— honako hauek izan ziren:

- a) hizkian aipatutakoak 6 puntu lortu zuen. Puntuazio horren arabera, lehenengo ordainketa mantendu zuen (1.500 euro), bigarren ordainketa jaso zuen (1.000 euro) eta ez zen argitaratu, baina IVAPeko liburutegian sartu zen.
- b) hizkian aipatutakok 4 puntu lortu zuen. Puntuazio horren arabera, ikertzaileek ez zuten jaso bigarren ordainketa eta itzuli behar izan zuten lehenengo ordainketa (3.000 euro), ikerlana ez da argitaratuko, ezta IVAPeko liburutegian sartu ere.

Aurrekontuaren adierazleei dagokienez, deialdi hauek 1216 programan (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Administrazio publikoetako langileak aukeratu eta prestatu) sartuta daude eta programa horretako adierazleek deialdiari erreferentzia egiten diote. Hori 2014an gertatu zen eta urte horretan jasotako helburuak bete ziren.

IVAPeko kalitatea kudeatzeko sistemaren helburu eta adierazleei dagokienez, honako datu horiek dauzkagu 2014-2015eko programa honetan:

ADIERAZLEAREN IZENBURUA		2014-2015 HELBURUAK	2014-2015 ADIERAZLEAK
2	Laguntzen deialdian argitaratutako lanak	2	0
4.1	Ikertzaile indibidualeko modalitatean aurkeztutako eskaerak	4	5
4.2	Ikertzaile taldeentzako modalitatean aurkeztutako eskaerak	6	8
7	Uko egitearen ehunekoa	0	0
8	Liburutegian utzitako ikerlanak	0	1

1.- Izenburua

2015-2016ko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza deialdia

2.- Araua

2015eko apirilaren 16ko EBAZPENA, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2015-2016 aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzearen hiru diru-laguntza emateko merezimendu-lehiaketarako deialdia egiten duena (2015eko apirilaren 23ko EHAA).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen helburua da, Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai jakin batzuei buruzko ikerlanak egitea eta Euskadiko herri-administrazioen eraginkortasuna areagotzea. Ikerkuntza programa honek urtebeteko iraupena du.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2015-2016 aldirako diru-laguntzen esleipenak balio izango du Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten ikerketa-arloak garatzeko.

Aurrekontuaren adierazleei dagokienez, deialdi hauek 1216 programan (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Administrazio publikoetako langileak aukeratu eta prestatu) sartuta daude eta programa horretako adierazleek deialdiari erreferentzia egiten diote. Helburua zen hiru diru-laguntzarako deia egitea eta horrela egin da (helburua bete da): bata ikertzaile bakarra aritzeko eta beste bi ikertzaile taldeak aritzeko. Modalitate indibidualeko laguntza hutsik gelditu da eta ikerketa taldeko modalitatean bi laguntza esleitu dira.

Abian dagoen deialdian, diru-laguntza jaso duten ikerketa-proiektuak honako hauek dira:

1. *¿ES POSIBLE FINANCIERAMENTE UN PILAR BÁSICO DE PREVISIÓN SOCIAL EN EUSKADI? FACTORES CLAVE* (NOEMI PEÑA MIGUEL, ANA FERNÁNDEZ-SAINZ, JOSEBA IÑAKI DE LA PEÑA ESTEBAN)

2. IUSFUNDIE: DERECHOS FUNDAMENTALES Y FORMAS ACTUALES DE DETENCIÓN, INTERNAMIENTO Y EXPULSIÓN DE PERSONAS EN *SITUACIÓN ADMINISTRATIVA IRREGULAR*: ANÁLISIS EMPÍRICO Y ALTERNATIVAS DESDE LA CAE (IKER BARBERO, CRISTINA BLANCO, NIEVES ARRESE, ANA ROSA GONZALEZ MURUA)

Ikerlanak 2016an aurkeztu behar dira eta orduan baloratuko dira.

Deialdia bukatuta (2016an) ebaluatuko ditugu deialdi honetako helburuak eta adierazleak.

1.- Izenburua

Diru-laguntza, Hirigintzari buruzko XXXIX. Ikastaroko (Bilbo, 2014-2015) eta Hirigintzari buruzko XL. Ikastaroko (Donostia, 2014-2015) ikasleek praktikak egin ditzaten.

2.- Araua

EBAZPENA, 2015eko ekainaren 24koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako hirigintzako ikastaroen erakundeetako eta/edo enpresetako praktika-aldia arautzen duena (EHAA 122 zk., 2015eko uztailaren 1a).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen du Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroa, eta 2014-2015 ikasturtean erakundeetan eta/edo enpresetan 300 ordu inguruko praktika-aldia antolatu zuen, hirigintza-arloan hamabi hilabeteko eskarmentua baino gutxiago dutenentzat. Parte-hartzaile bakoitzari, gehienez, 2.000,00 euroko diru-laguntza ematen zaio.

Hona praktika-aldiaren helburu nagusia: Hirigintzari buruzko XXXIX. ikastaroa egin dituen ikasleek hirigintzaz ikasitakoa erakunde publikoetan eta/edo enpresetan aplikatzea, bertan lau hilabeteko praktikak eginez, gutxi gorabehera.

4.- Lortutako emaitzak aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Hala, lotura estuagoa errazten da hirigintza- lurralde- eta ingurumen-arloetan langile espezializatuen beharra izan dezaketen zentro eta profesionalekin, baita erakunde publiko eta pribatuekin ere.

Ikasleek jarduera erdi-profesionala garatzen dute, eta aukera izaten dute erakunde publikoetan, "in situ" ezagutzeko zertan den eta zelan kudeatzen den hirigintza. Horretarako, aholkularitzalanetan ibiltzen dira eta proiektu profesional batean parte hartzen dute, 4 hilabetez edo. Horrek guztiak ondorio garrantzitsuak dauzka Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroko ikasleentzat, ez baitute eskarmenturik hirigintza-kontuetan eskarmenturik.

Emaitzak onak izan dira

Helburua 8. Funtzionarioen, profesionalen eta graduatu-ondokoen prestakuntza, Hirigintza, Lurralde-Antolamendu eta Ingurumenaren arloetan. Ekintza: Hirigintzako Praktikak. Adierazlea: Praktiketari izandako ikasle-kopurua. Onartu zen magnitudea 9 ikasle praktiketari izan zen. Aurrekontu-zuzkidura 20.000,00 € (Gizarte Segurantzaren gastuak barne).

Adierazlea: 1. Praktiketari izandako ikasle-kopurua		
Proposatutako magnitudea: 9		Lortutako magnitudea: 9
Aurrekontu-zuzkidura		
Proposamena: 20.000,00 €		Gauzatutako Aurrekontua: 17.348,28 €
Lurralde Banaketa		
Lurralde Historikoa	Praktiketari izandako ikasle-kopurua	Aurrekontu-zuzkidura (1.800,00 € /ikasle + Gizarte Segurantzaren)
Bizkaia	9	17.348,28 €
Guztira	9	17.348,28 €
<p>Praktikaldia egin zuen ikasleak kobratu zuen 1.800,00 € . IVApek Gizarte Segurantzaren gastuak ordaindu zituen.</p> <p>Hasieran, 11 ikasleri eman zitzaizkien diru-laguntzak baino azkenean bederatzik ikasleek egin dute praktikaldia:</p>		

1.- Izenburua

Hirigintzako XLI. (41) Ikastaroaren (Bilbo, 2015-2016) matrikula-bekak.

2.- Araua

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 1ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendeko Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatu duen Hirigintzako XLI. (41) Ikastaroa (Bilbon egitekoa, 2015-2016) egiteko deialdia zabaltzen duena. Aldi berean, ikastaro horietan parte hartzeko 4 matrikula-beka eskatzeko deialdia egiten da. (EHAA 128 zk., 2015eko Uztailaren 9a).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen ditu Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroak; horren barruan urtero bezala, 2015-2016 ikasturtean, 4 lagun ikastaro osoaren matrikula ordaintzeko bekak deitzen dira XLI. (41). Ikastaroan (Bilbon egitekoa, 2015-2016). Matrikula-beka bakoitza 2.780,00 eurokoa da (ikastaro osoa ordaintzeko besteko kopurua).

Xedea da baliabide ekonomiko nahikorik ez duten graduatu-ondokoek ere parte hartzen dutela ziurtatzea.

4.- Lortutako emaitzak , aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizarte

Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenek eta karreran batuz besteko nota batetik gora daukatenek ikastaroa egin dezakete.

Helburua 8. Funtzionarioen, profesionalen eta graduatu-ondokoen prestakuntza, Hirigintza, Lurralde-antolamendu eta Ingurumenaren arloetan. Ekintza: Prestakuntza-ekintzak antolatu. 3. Adierazlea: Ikastaro modularretarako matrikula-beken kopurua. Onartu zen magnitudea 5 beka-matrikula. Aurrekontu-zuzkidura 13.370,00 € .(Ikastaro osoen matrikula aurreikuspena egiterakoan: 2.674,00 €, baina ikastaro hasieran matrikula 2.780,00 €. Izan zen, horregatik murriztu behar zen matrikula-beken kopurua).

3. Adierazlea: Ikastaro modularretarako matrikula-beken kopurua

Proposatutako magnitudea: 5

Lortutako magnitudea: 3

Aurrekontu-zuzkidura

Proposamena: 13.370,00 €

Gauzatutako Aurrekontua: 8.022,00 €

Lurralde Banaketa		
Lurralde Historikoa	Matrikula-beken kopurua	Aurrekontua
Bizkaia	3	8.022,00 €
Guztira	3	8.022,00 €

2015-2016ko Ikastaroan 4 beka-matrikula esleitu dira (EBAZPENA, 2015eko irailaren 21ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena. Honen bidez, 2015-2016rako antolatu den Hirigintzako XLI. (41) ikastaroa egiteko matrikula-bekak esleitzen dira. Bilbon egingo da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendean dagoen LHIEE-Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU) antolatuta. (EHAA 188 zk., 2015eko urriaren 2a).

1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak.

2.- Araua

Ebazpena, 2015eko apirilaren 22koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honek bultzatu nahi ditu Eusko Jaurlaritzako sail, bere erakunde autonomo eta Administrazio Publikoko hainbat lan-taldeetan egituratutako prestakuntza programa eta planak egitea; prestakuntza beharren azterketan eta lortutako emaitzen neurketan oinarritutakoak.

Horrez gain, programak ahalegin partekatua sustatu nahi du; izan ere, diru laguntzak, gehienez, prestakuntza planaren kostuaren %50a suposatzen baitu eta beste zatia dagokion administrazioak ordaindu behar baitu.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laugarren deialdi honetara, Eusko Jaurlaritzako bost sailek, hiru erakunde autonomok, Osakidetzak eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak aurkeztu zituzten prestakuntza-planak. Erakunde horiek 1.380.222,6 euroko diru laguntzak jaso zituzten, 8.706.236,51 euro baino gehiagoko azken balioa zuten prestakuntza-planak betetzeko.

Aurkeztutako aurrekontuan, 45 prestakuntza-plan, eta 13.500 pertsonako kolektibo bat aurreikusten zen. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publiko osoan aurkeztuak, aldiz, 48 prestakuntza-plan izan ziren; eta 57.000 pertsona baino gehiago izan ziren onuradunak.

Goiko testuan aipatzen diren administrazioak kontuan izanik, 12 prestakuntza-plan aurkeztu ziren.

Prestakuntza finantzatzeko emandako laguntzak hauexek dira:

Eusko Jaurlaritzako Sailak	119.696,10€
Justizia eta Administrazio Publikoa	24.722,60€
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	20.376,50€
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	30.041,00€
Ogasun eta Finantza Saila	16.426,50€
Segurtasun Saila	12.663,00€
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	15.466,50€

Erakunde Autonomoak	68.493,56€	
Eustat	6.495,00€	
Kontsumobide	2.361,50€	
Lanbide	59.637,06€	
Polizia eta Larrialditako Euskal Akademia	115.000,00€	
Irakasleak	491.000,00€	
Osakidetza	438.500,00€	

1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak.

2.- Araua

Ebazpena, 2015eko apirilaren 22koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honek, bultzatu nahi ditu toki- eta foru-administrazioetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean egituratutako prestakuntza programa eta planak egitea; prestakuntza beharren azterketan eta lortutako emaitzen neurketan oinarritutakoak

Horrez gain, programak ahalegin partekatua sustatu nahi du; izan ere, diru-laguntza, gehienez, prestakuntza planaren kostuaren %50ekoa da eta beste zatia dagokion administrazioak ordaindu behar du.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laugarren deialdi honetara, 32 udalek aurkeztu zituzten prestakuntza-planak. Plan horien barruan, 800.000 euro baino gehiagoko prestakuntza-ekintzak egin dituzte.

Beste 132 udalek eta toki-erakundeek, prestakuntza-plana aurkeztu ez zutenak, IVAPi ordaindutako matrikularen %50a jaso zuten, IVAPek antolatutako ikastaroetan parte-hartzea finantzatzeko.

Hiru Foru Aldundiek 700.000 euro baino gehiagoko prestakuntza-planak osatu zituzten haien langileentzat; eta jaso zituzten 340.000 euro inguruko diru-laguntzak.

Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileentzat zuzendutako prestakuntza-plana ere aurkeztu zen eta ekintzen %100a burutu zen.

Aurkeztutako aurrekontuan, 45 prestakuntza-plan, eta 13.500 pertsonako kolektibo bat aurreikusten zen. . Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publiko osoan aurkeztuak aldiz, 48 prestakuntza-plan izan ziren; eta 50.000 pertsona baino gehiago izan ziren onuradunak.

Goiko testuan aipatzen diren administrazioak kontutan izanik, 36 prestakuntza-plan aurkeztu ziren.

Emandako prestakuntza finantzatzeko laguntzako honakoak izan dira:

Udalak	Emandako dirua
Prestakuntza Planak	326.676,06€
Matrikulak	42.378,00€
Foru Aldundiak	345.000€
Bizkaiko Foru Aldundia	198.556,37€
Gipuzkoako Foru Aldundia	100.349,36€
Arabako Foru Aldundia	46.094,27€
UPV-EHU	65.000€

1.- Izenburua

Euskara ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko diru-laguntzak.

2.- Araua

Gaur egun, diru-laguntza horiek Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko AGINDUaren II. kapituluan jasotako arauaren bidez arautzen dira. Agindu horren bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntza zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko diru-laguntzen arauak. Agindua 2005eko abenduaren 19ko 239 zenbakidun EHAA n argitaratu zen.

Arau horretan honako alderdiak jaso dira: diru-laguntzen helburuak, onuradunak eta lortzeko bete behar diren betekizunak, diruz lagun daitezkeen jarduerak, prozedura eta eskaerak aurkezteko epeak, laguntzak kudeatzeko organoa, eskaeratako akatsen zuzenketa, diru-laguntzak ordaintzeko irizpideak eta diru-laguntzen kopuruak, beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna, deialdiaren ebazpena, onuradunen betebeharrak, diru-laguntzaren aldiak, diru-laguntzaren baldintzak aldatzea eta ez-betetzeak.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskara ikastaroetara doazen langileak ordezkatzeko udal administrazioei ematen zaizkien diru-laguntzen jatorria Erakunde eta Herrizaingo Batzordearen 1989ko ekainaren 17ko ebazpenean dago. Ebazpen horren 7. irizpideak honako hau ezarri zuen:

"Toki Administrazioiko prozesu horren kostuak udalek bakarrik ordain ez ditzaten, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio hori finantzatzeko formulak azter ditzan, dagokion araudian sartzeko asmoz."

Diru-laguntza horiek lagungarriak izan dira udal administrazioen (udalak eta mankomunitateak) hizkuntza-normalkuntzako planen helburuak lortzeko, izan ere, aukera eman dute lanpostuan hizkuntza-eskakizuna ziurtatzeko derrigortasuna izanik lan-orduetan euskara-ikastaroetara doazen langileak ordezkatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2015ean eskatu eta esleitutako diru-laguntzak hurrengo taula hauetan daude jasota; diru-laguntzak esleitzeko bi aldietako bakoitzari buruzko datuak laburbiltzen dira bertan:

2015eko urtarril-ekaina

EBAZPENA, 2015eko urriaren 6koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, eranskinean aipatzen diren udalei ordezkapenatarako diru-laguntza ematen diena (2015eko urriaren 20ko EHAA, 199. zk.)

	Esleitua
Erakundeak	3
Enplegatuak	6
Zenbatekoa orotara	30.086,79 €

2015eko uztail-abendua

EBAZPENA, 2016ko urtarrilaren 20koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, eranskinean aipatzen diren udalei ordezkapenetarako diru-laguntza ematen diena (2016ko otsailaren 1eko EHAA, 20. zk.)

	Esleitua
Erakundeak	4
Enplegatuak	6
Zenbatekoa orotara	25.943,92 €

Diru-laguntza hauek udal-administrazioetako hizkuntza-normalizazioko planen helburuak betetzeko dira (udalak eta mankomunitateak), eta beren lanpostuan hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar dutelako lan-orduetan euskara-eskolak hartu behar dituzten enplegatuak ordezkatzeko aukera ematen dute. Hala bada, azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean herri-administrazioarekiko harremanetan euskara eta gaztelania erabiltzeko legez aitortzen zaizkien eskubideak apurka-apurka bete ahal izatea bermatzen da, bai eta hautatzen duten hizkuntzan erantzun dakien eskubidea ere.